

KARMELE JAIO

Idazlea, prentsa arduraduna...
Seme-alabek uzten diotenean egiten du lo.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkia: Alex Larretxi

«Kanona bihurtzeko askoz errazagoa nuke gizona banintz»



Zer moduz idazle zinematografikoen olinpogan?

Auzokoak ez du jakin idazlea naizenik pelikula egingo dutela irakurri duen arte. Argi dago glamour eta oihartzun kontuan literaturan gabiltzanok ez daukagula zinearen aurrean zereginik.

Orain, Urrezko Euskadi Saria edo Espainiako Sari Nazionalarekin egingo duzu amets... Edo ez... Auskalo. Hainbeste saltsarekin ez daukat argi.

Kontuz ibili behar da sariekin, ametsa amesgaizto bihurtu daiteke eta. Esan zuen Sarrionandiak: norbaitek baliogabetu nahi bazaitu elefante zuria oparitzen dizula.

Izan ere, puntako idazlea izateko aski da liburu onak idaztea, ezta?

Puntako idazlea izatea asko saltzea eta komunikabideetan agertzea baldin bada, hor merkatuak eta marketinak eragin handia dute. Eta prestigioa lortzea baldin bada, kanona nork ezartzen duen baldintzatzen du. Guzti hori alde batera utzita, idazle ona izateko, liburu onak idatzi behar dira.

Tira, euskaraz idazten duen emakume gasteiztarra izanik, askotan esango zizuten kanona bihurtzeko txartel guztiak daukazula.

Kanona? Barka, kanona bihurtzeko askoz errazago nuke lehenik eta behin gizona banintz. Ez zenuen kanon hitza kuota hitzarekin nahastuko, ezta?

Kuotak kuota, orijinaltasunaren saria merezi duzu. Liburu berria noizko eta Durangorako!

Bai, ezta? Liburuetako gaietan ere ez omen naiz oso orijinala, baina norbaitek esan zuen bezala, idazleak beti gaude liburu bera idazten, behin eta berriz.

Bota titular batzuk zure liburua irakurri gabe orriak bete beharko dituzten kazetari gaixoztat.

Liburuaren izenburua: *Ez naiz ni*. Ipuin liburua da. Aurrekoak baino luzeagoak atera zaizkit, eta umore eta sexu gehiago dago. Azken hori gehiago saltzeko esan dut, noski. Nahiko erraztu diet lana, ez?

Ez da literaturaz hitz egitea komeni?

Literaturaz baino gehiago literatur sisteman dauden beste hainbat osagairi buruz hitz egiten da. Eta uste dut azkenean horrek eragina izaten duela literatura egiteko moduan ere.

Eskerrak komunikazio arduradunak zaudeten kazetarion lana kontrolatzeko. Barka, "errazteko" esan nahi nuen.

Kazetari asko eroso bizi da komunikazio arduradunen kontrolpean. Gaurko kazetari-tza erredakziotik irten gabe egiten da, eta kazetari gehienek komunikazio bulegoen dependentsia handiegia dute. Liburuak irakurri gabe idazleak elkarrizketatzen dituen kazetaria larri ibiliko litzateke prentsa laburpenik gabe. ■

